

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tomas Garai Marcaide

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1949)*

Aurkibidea



Biografia



Tomas Garai, Bedoña (Arrasate) auzoko Artia baserrian jaio zen 1949an. Eskolako lehenengo urteak Bedoñan pasa zituen arren, bederatzi urterekin Arrasateko San Viatorren ikasten hasi zen eta aldaketa handia suposatu zion, batez ere hizkuntzarengatik. Bedoñan umetan eta gaztetan pasatako kontuez, baserriko lanez, baserriaren berrikuntzez, elikaduraz, ligatzeaz, Arrasateko industria garapenaz... jardundu.

Zintak

ARR-193

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-07-05
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Bedoñako Artiaga baserria

- **Erref:** ARR-193/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:00:29. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Artia baserrian jaioa. Tomasen aitak 11 anai-arreba zituen eta denak bizi ziren baserrian, haien senar-emazte eta seme-alabekin. Jende asko bizi ziren baserrian. Artia baserriaren historia.

2. Baserriaren ekoizpena: animaliak, baratzea, esnea, ogia...

- **Erref:** ARR-193/003
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Baserrian ardiak eta behiak zituzten. Baratzean artoa, garia eta arbia ekoizten ziren, besteak beste. Ekoizten zutena jaten zuten. Txahala eta esnea saltzen zuten. Astoarekin jaisten ziren Arrasatera esnea saltzera.

3. Oiloak libre

- **Erref:** ARR-193/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiloak libre izaten zituzten barraskiloak soroetatik urruntzeko. Gaur egun ekologikotzat jotzen den ekoizpena, lehen normaltzat hartzen zen.

4. Umetan jolasean

- **Erref:** ARR-193/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan zoriontsu izan da. Lau anai dira eta beti jolasean zeuden. Berunezko auto txikiekin jolasteko pistak egiten zituzten. Tiragomekin ibiltzen ziren ere. Ehiza behar bat zen.

5. Bideak pikatxoiekin egiten

- **Erref:** ARR-193/006
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Aitak lehenengo autoa nola erosi zuen. Arrasatetik Bedoñara joateko bidea zegoen, baina baserrira heltzeko ez. Gero egin zituzten auzolanez baserrirako bideak. Basoko pixka bat egiten galziarrak eta kantabriarrak ibiltzen ziren eta askotan janariarengatik lan egiten zuten.

6. Gurdientzat gomazko gurpilak Gasteiztik ekarriak

- **Erref:** ARR-193/007

- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Gurdientzat gomazko gurpilak Bedoñara nola heldu ziren. Gasteizera joan ziren haien bila. Hasieran gurpilekin ez ziren konpontzen baina azkenean lortu zuten gurpilekin ondo lan egitea.

7. Arabara animalientzat bazka bila

- **Erref:** ARR-193/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Arrasatetik Gasteizera trena egon arren, haiek ez ziren asko joaten. Autoa erosi zutenean bai, animalientzat bazka bila joaten ziren gehienbat. Bergarara ordea, trenean joaten ziren jaietan.

8. Bedoñako auzo-eskola

- **Erref:** ARR-193/010
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Garai batean, Bedoñan eskolak apaizak ematen zituen. Dotrina bakarrik erakusten zen. Tomas bertan urtebete ibili zen baina abadez aldatu eta honek eskola ematen ez zutenez, auzoan eskola eraiki zuten. Euskaraz hitz egitea debekatuta egon arren, Bedoñan ez zituzten haurrak zigortzen.

9. Baserritarrak izateagatik mespretxua eta bullyng-a

- **Erref:** ARR-193/011
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Arrasatera ikastera joan zenean anaiarekin, mespretxu asko jaso zuten, gaztelaniaz ez zekitelako eta baserritarrek zirelako. Katalunian bizi izan zen izeba batek erakutsi zizkien matematikak eta gaztelaniaz idazten eta irakurtzen. San Viatorrera ikastera joan zireneko lehenengo eguna gogoratzen du.

10. Medikua eta notarioaren semeen laguntza, eskolan integratzeko

- **Erref:** ARR-193/012
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

San Viatorreko eskolan, orduko medikuen bi seme eta notarioaren beste batek babespean hartu zituzten Tomas eta bere anaia. Haien laguntzaz klaseak jarraitu ahal izan zituzten. Gaztelaniaz hitz egitea derrigorrezkoa zen eta gainera modan zegoen.

11. Lana Kooperatibaren sorrera eta garapena

- **Erref:** ARR-193/014
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:34:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Lana Kooperatibako sortzaileetako bat izan zen Tomasen aita. Kooperatibaren sorrera, garapena, bazkideak, langileak, ekoizleak, konpetentzia...

12. Gehienbat barazkiak jaten zituzten baserrian

- **Erref:** ARR-193/016
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:37:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

<p>Baserrian, beste ezer baino gehiago barazkia jaten zen. Plazan barazkiak saltzen zituzten eta bueltan etxera zihoan dena jaten zuten. Amak haragia eta arraina erosten zituen herrian. Urtean txerri bat hiltzen zuten baserrian.</p>

13. Garai batean, baserrietan urdaiazpiko ondua egiten zen

- **Erref:** ARR-193/018
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:38:08. **Bukatu:** 00:39:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Txerria hiltzen zutenean, etxeko anai-arreben artean banatzen zuten haragi guztia. Hasieran urdaiazpikoa egiten zen baserrietan baina klima aldatu egin zen eta hezetasun gehiago zegoenez, ez zen ondo ontzen.

14. Jaietako menua, oilaskoa, zainzuriak eta "kesokemaua"

- **Erref:** ARR-193/019
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:39:29. **Bukatu:** 00:41:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Egun berezietan eta jaietan oilaskoa jaten zen. Bedoñako jaietan familia osoa elkartzen ziren. Zainzuriak jaietan bakarrik jaten zituzten. Legatza. Arrasateko denda batzuetan saltzen zen. Azkenburuko bezala, "kesokemaua", flana jaten zuten.

15. Arrasaten arbigara jaten da

- **Erref:** ARR-193/020
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:41:16. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

Gabonetan, osaba batek angulak eramaten zituen. Arbigarak Arrasaten eta Aretxabaletan jaten dira. Garai batean ez zegoen pastelik eta Maria galletak jaten zituzten.

16. Bedoñako baserrien argia pribatua zen; ur-depositua

- **Erref:** ARR-193/021
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Garai batean, baserrira heltzen zen argia pribatua zen, auzotarrena.

Hilabetero faktura pasa eta umeak baserriz baserri joaten ziren bakoitzak kontsumitutakoa kobratzeko. Ura, depositu batetik lortzen zuten. Ura sukaldeko ekonomikan berotzen zuten. Komunik ez.

17. Baserriko lehenengo dutxa eta garbigailua

- **Erref:** ARR-193/022
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Baserrian lehenengo dutxa jarri zenean, urak ez zuen presiorik. Ur hotzarekin dutxatzen ziren. Arropak harrian garbitzen zituzten. Lehenengo garbigailua baserrian.

18. Gerrari buruz ez zen hiitz egiten

- **Erref:** ARR-193/025
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:49:44. **Bukatu:** 00:50:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gurasoek ez zuten gerrari buruz hitz egiten semeekin. Errepresio gogorra jaso zuten eta seme-alabei mesede egiteagatik ez zuten ezer kontatzen.

19. Larragainera bala-zorroen bila

- **Erref:** ARR-193/026
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:50:49. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Larragainen gerrako trintxerak egon ziren eta auzoko lagun nagusiagoekin joaten ziren bala-zorroen bila. Etxean debekaturik zeukaten hara joatea, jakina zelako hainbat soldadu bertan zeudelako lurperatuta.

20. Euskaraz egiteagatik zigortuak

- **Erref:** ARR-193/027
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Frankismoan, hizkuntzaren gaineko menpekotasuna. Euskal folklorea gaztelaniara itzultzen zen. Euskaraz hitz egiteagatik eskolan jasan dituen zigorrak. "Rubio" koadernoekin gaztelaniaz ikasten.

21. Umetako jolasak: kanikak, toketorreka, hanka-koxkoka, "kantineritas"...

- **Erref:** ARR-193/029
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:58:28. **Bukatu:** 01:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ume garaian, neguan elizpean jolasten zuten. Kaniketara, hanka-koxkoka, taketorreka (zapiaren jokoa), kui-kuike (gordeketetan)... "Aemaittekue" bederatziretan izaten zen, Ave Mariaren orduan. Bilbotik auzora oporretan joaten ziren ume batzuk zeuden eta haiekin gaztelaniaz egiten zuten askotan. Haiekin, "kantineritas"-era jolasten zuten.

22. Malbe-ren baserrian jolasean

- **Erref:** ARR-193/030
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:02:37. **Bukatu:** 01:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Malbe-ri buruz. Bere baserrira joaten ziren jolastera eta Malbe zirikatzera.

23. Errekan bainatzen eta amuarraín eta karramarroak harrapatzen

- **Erref:** ARR-193/031
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:04:54. **Bukatu:** 01:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Errekara joaten ziren bainua hartzera, neska eta mutilak. Ez zekiten igerian. Amuarraínak eta karramarroak harrapatzen zituzten. Amuarraínak eskuekin nola hartzen diren. Behin sugea ukitu zuen ta geroztik ez da amuarraínak hartzera joan.

24. Bedoñako jaiak eta soinu-jotzaileak

- **Erref:** ARR-193/032
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:07:24. **Bukatu:** 01:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bedoñako jaiak abenduan dira, Santa Eulalian. Errastiko tabernako kortan erromeriak egiten ziren. Hasieran soinu-jotzaileak joaten ziren eta gero trikitilariak: Sarkoitzua, Gardoki, Egañazpi eta Sakabi, Laja eta Landakanda, Laja eta Iturbide...

25. Dantza lotuan distantziak markatzeko erak

- **Erref:** ARR-193/033
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:11:30. **Bukatu:** 01:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gaztetan, lotuta dantzan egiten zuten. Ligatzeko oso aproposa zen, bikoteak sentimenduak dituzten edo ez jakiteko. Neskek dantza lotuan distantziak nola markatzen zituzten.

26. Arrasaten ez zegoen ligatzerik

- **Erref:** ARR-193/034
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:13:42. **Bukatu:** 01:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Baserritik abarkak jantzita jaisten ziren kalera eta gaur egun Etxaluze zahar-etxea dagoen lekuan zegoen labaderoan abarkak utzi eta zapatak janzten zituzten. Kaleko neskek ez zuten baserritarrekin elkartu nahi. Azkenean, Oñatin ezagutu zuen emaztea.

27. Oñatira neska-lagun bila

- **Erref:** ARR-193/035
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:16:24. **Bukatu:** 01:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Oñtilda;atira joaten hasi ziren bakeroen filmak ikustera eta han ezagutu zuen emaztea. Arrasate inguruko herri askotako jendea ezkondu zen Oñtilda;atiko jendearekin.

28. Cerrajeratik atera ziren tailerrak

- **Erref:** ARR-193/036
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:18:20. **Bukatu:** 01:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Boom industrialak, behar berriak sortu zituen, produktu berriak sortzen zirelako. Garbigailuak, berogailuak, sukalde berriak... Cerrajerari buruz eta bertatik atera ziren hiru adar nagusiak.

29. Kooperatiben hazkundera

- **Erref:** ARR-193/037
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:21:49. **Bukatu:** 01:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Kooperatibaren filosofia, ezaugarriak eta hazkundera. Kooperatiba erakargarriagoa zen ikuspegi ezberdinetatik.

30. Cerrajera eta Gelmak langilegoaren borroka

- **Erref:** ARR-193/038
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:23:43. **Bukatu:** 01:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Cerrajerak eta Gelmak langile-mugimendu handia izaten zuten. Asko borrokatu zuten langileen baldintzak hobetzeko eta gero, gainerako enpresetara zabaltzen ziren hobekuntzak, baita kooperatibara ere. Kooperatiba eta gainerako enpresen hazkunderaren arteko ezberdintasunak.

31. Boom industrialaren ondorioz, etxebizitza altuak eraiki ziren

- **Erref:** ARR-193/039
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 01:26:05. **Bukatu:** 01:30:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialala

Laburpena:

Boom industrialaren ondorioz immigrazio asko jaso zuen Arrasatek. San Andres auzoa garai batean nolakoa zen. Etxebizitza berriak alturan eraiki ziren. Lantegiek lursail handiak behar zituzten.

32. Industria hazkundeak behar berriak sortu zituen

- **Erref:** ARR-193/040
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:30:46. **Bukatu:** 01:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialala
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Industria hazkundeak behar berriak sortu zituen etxe guztietan: garbigailuak, berogailuak, hozkailuak, autoak... Gaur egun denetik dago.

33. Ilargira lehen bidaia, Teruelen filmatua

- **Erref:** ARR-193/041
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:32:10. **Bukatu:** 01:34:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ilargira lehen bidaia, Teruelen filmatua izan zela esaten zuen auzoko batek.

34. Internet eta gazteak: pornoa, armak...

- **Erref:** ARR-193/043
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:35:59. **Bukatu:** 01:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Gaur egungo gazteek interneten gauza larregi ikusten dituzte. Haiek gaztetan nolakoak ziren.

35. Auzo ezberdinen arteko pikeak

- **Erref:** ARR-193/044
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:37:17. **Bukatu:** 01:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Auzo eta herri ezberdinen arteko gazteen arteko pikeak, gehienbat nesken kontura izaten ziren. Hala ere, errespetuz bizi izan dira.

36. Bedoñan bizitzea zer den; kostu ekonomikoa

- **Erref:** ARR-193/046
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 01:39:13. **Bukatu:** 01:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bedoñan bizitzea ohitura bat da. Kanean edo baserrian bizitzearen ezberdintasunak. Baserrian bizitzearen kostu ekonomikoa: hobekuntzak, teilatua, lanak, garraioa... Garai batean pinuak saltzean baserrian hobekuntzak egin ziren baina gaur egun egoera ezberdina da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com